

Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*: kontrastea eraikuntza-euskarri

(*SPrako tranbia* by Unai Elorriaga: Contrast as
a support for construction)

Toledo Lezeta, Ana M^a

Deustuko Unib. Giza Zientzien Fak. Mundaiz, 50. 20012 Donostia

BIBLID [1137-4454 (2006), 22; 11-42]

Jaso: 04.11.15

Onartu: 05.01.14

Kontrastea da Unai Elorriagaren SPrako tranbiaren eraikuntza-ardatza. Bizilagun heterodoxoz eta ortodoxoz jendeztatuz testua, bizilagun horien berri emateko zenbait esenez baliatuz eta eszenen arteko denbora-tarteak isilduz, unitate linguistikoen gehikuntza edo ezabaketa bide adierazpen estandarretik urrutiratuz, leku eta denbora zehazgabeetan gertatzen den istorioan ekintza batzuk zehaztasunez kokatuz, kontaketa iteratibotik singulatiborako jauziak eginez,... balore-sistema hedatuenetatik kanpo bizi diren pertsonaia batzuk nabarmentzen ditu.

Giltza-Hitzak: Araua. Aurreikusgarria. Etena. Ez-ohikoa. Kontrastea. Mikrokosmosa. Pertsonaia-tipoa.

El contraste es el eje de construcción de SPrako tranbia de Unai Elorriaga. Poblando el texto de habitantes heterodoxos y ortodoxos, valiéndose de algunas escenas para dar a conocer a estos habitantes y elidiendo los intervalos de tiempo entre las escenas, alejándose de la expresión estándar por medio de la suma o eliminación de unidades lingüísticas, ubicando con detalle determinadas acciones en una historia que tiene lugar en un tiempo y un espacio indeterminados, mediante saltos de la narración iterativa a la singulativa... da relieve a unos personajes que viven al margen de los sistemas de valores más extendidos.

Palabras Clave: Norma. Predecible. Ruptura. Singular. Contraste. Microcosmos. Personaje tipo.

Le contraste est l'axe de construction de SPrako tranbia de Unai Elorriaga. Peuplant le texte d'habitants hétérodoxes et orthodoxes, se servant de quelques scènes pour faire connaître ces habitants et taisant les intervalles de temps entre les scènes, s'éloignant de l'expression standard au moyen de la somme ou de l'élimination d'unités linguistiques, situant en détail certaines actions dans une histoire qui a lieu dans un temps et un espace indéterminés, au moyen de sauts du récit itératif au singulatif... donne du relief à des personnages qui vivent en marge des systèmes de valeurs les plus étendus.

Mots Clés: Norme. Prévisible. Rupture. Inhabituel. Contraste. Microcosmos. Personnage type.

Azterlan bati hasiera emateko unean, gomendagarri izan ohi da ezarri zaizkion helburuak agerian jartzea, baita helburu horiek zenbateraino lor daitezkeen adieraztea ere. Gomendio horri jaramon eginaz, hona, honakoaren jomuga: Unai Elorriagaren *SPrako tranbia* kontaketa-aren eraikuntza deskribatu. Eraikuntzaren deskripzio koherentea egitea bilatuko da, baina, jakina, muga batzuen barnean: eraikuntza horretaz egin daitezkeen deskripzio koherenteetariko bat; ez besterik. Egiteko hau burutzean eraikuntza horren ardatza azaltzera iritsi nahi litzateke, bira-gune duen ardatza erakustera, hain zuzen ere.

Egingo den deskripzioaren arabera, kontrastea da *SPrako tranbiaren* eraikuntza-ardatza, prozedura horren erabilera kontaketa-koordinada desberdinen eraketara hedatzen baitu. Testuaren barne-azterketak agerian uzten du kontrastea bide azpimarratzen duela; izan ere, elementu ez-markatuaren eta markatuaren arteko kontrastetik sortzen dira azpimarratu nahi diren efektuak. Testuaren muga zehatzak utzi eta, testuak kontatzen duena testutik kanpo dagoen mundu errealearekin erkatuz gero, aurkakotasuna nagusituko litzateke. Honela bada, *SPrako tranbiaren* azterketa maila sintagmatiko soilan lekutzen denean, Elorriagak kontrastearen gain eraiki duela istorioa erakutsiko du azterlan honek eta, testua testutik kanpo dagoen munduarekin harremanetan jartzean, berriz, aurkakotasunaren gain eraiki duela. Lehena testuaren eraketa-modu soilak sorrarazten duenez, testu-maila hutsean atzematen da. Bigarrena, berriz, testua beronengandik kanpo dagoen munduaren argitan begiratzean sumatzen da.

SPrako tranbia kontaketa-forma laburrean, modu ez-problematikoan hezurmamitzen dira bizitza errealean oso problematikoak diren egoerak: gorputz eta buru-mailako ahalmenak hondamen-prozesuan dituen agure batekin bizi izateak edo belaunaldi desberdinetako pertsonaiak elkarrekin bizitzeak ez du gatazkarik sortzen. Egin dioten ebakuntzatik osatzen, ospitalean berrogei egun igaro dituen Lucasek, bere arreba Maria izan du zaintzaile. Kontalariak egonaldi horretaz egiten duen kontaketa ez dago Maria zaintzailearen kezurik, ezta ernegaziorik ere; aitzitik, anaiaren egonaldia arintzeko eta erosoago bihurtzeko ahaleginetan agertzen da uneoro. Ospitaletik etxeratzean, bizilagun berri bati egingo diote lekua: ospitalean zirelarik beren etxeaz jabetu den Marcos gazteari, hain zuzen ere. Beraiekin bizitzeko egin dioten gomita onartzen duen “gazte-okupa” aurrerantzean anai-arrebekin biziko da. Baina, adin desberdintasun honek ere ez du eragingo gatazkarik: Mariak eta Marcosek izandako haserre bakar bat aipatzen da eta inolako xehetasunik eman gabe berau. Berehala damutu eta, bakeak egingo dituzte, gainera. Ez Lucasen gorputz eta buru-mailako ahalmenen hondamen-prozesuak bultzatutako ekintzek eragiten dute problemarik, ezta belaunaldi desberdinetakoak elkarrekin bizitzeak ere. Hala, elkarrekin bizitzeaz, edo zahartzaroko ajeez eta berauek sorrarazitako ez-erosotasunez, emandako ikuspegia oso idilikoa da.

Pertsonaia bitxiak behar, naturaltasunez, samurtasunez, eskuzabaltasunez, alaitasunez... eguna joan eta eguna etorri, Lucasen hondamen-prozesu horrek sorrarazten dituen egoerak espanturik gabe eramateko. Eta bitxiak dira edo, bitxitasuna darie behintzat. Itxura bitxi hori beren balore-sistematik erne-

tzen da: pertsona eta bere beharrak beste balore guztien gainetik dituzte. Beren balore-sistemaren lehentasun hau aurkakotasunean dago gizarte-bizitzan ohikoena den balore-sistemak erakusten dituen lehentasunekin. Ohikoena denari kontrajartzean bitxitasuna darie. Dena den, gizarte-bizitzako pertsonengandik urrunarazten dituen ez da bakarrik beren balore-sistemaren lehentasunen mailakoa, bada, baita balore-sistema horri eusterakoan erakutsitako jarrera-mailakoa ere. *SPrako tranbiako* pertsonaiak hezur-haragizko pertsonarengandik oraindik gehiago aldentzen dira beren balore-sistema jarraitzeko moduarengatik: tinko eusten diote, gerta ahalak gerta. Bizitza errealeko pertsonengandik gehien urrunarazten dituen zera da: uneoro beren uste hutsen arabera jokatzeko, ez baitago gertaerarik, ez aldarerik, beren balore-sistemari tinko eustetik lerratuko dituenik. Ahuleziarik gabeko pertsonaiak dira, gizakiok ez bezala.

Pertsonaia ziurak dira. Honela, ez bere ahalmen fisiko eta psikikoak gainbeheran dituen Lucasekin bizitzea, ez belaunaldi desberdinetakoak elkarrekin bizitzea bihurtzen da gatatzeko. Balore-sistema bera izateak, beroni ahuleziarik gabe eusteak eta beste balore-sistema baten arabera bizi direnei jaramonik ez egiteak dakarren gatatzeko ezabaketak urrutiratzen ditu mundu errealetik; ez bestek. Maila honetan kokatzen da aurkakotasuna eta ez harantzago, ez baitu moztu errealtateari lotzen dion lokarria. Azken batez, errealtateaz dihardu *SPrako tranbiak*; izan ere, bertan pertsonaia bitxiak eta arruntak bizi dira, esan eta ekintza konbentzionalak eta antikonbentzionalak beteta dago, jokabide tipikoz eta atipikoz, eta guzti horrek agerian uzten du gizakiok bizileku dugun mundu honen problematikotasuna. Gertatzen dena zera da, mundu problematikoa honen problematikotasuna modu aproblematikoa adierazten dela, kontaktaren erdigunean kokatutako pertsonaiak elkarrekin bat datozelako eta berauekin bat egiten ez dutenak mesprezatu edo kontuan hartzen ez dituztelako.

1. PERTSONAIA HETERODOXOAK / ORTODOXOAK

Berez mundu konbentzionalak eta mundu ez konbentzionalak elikatzen da *SPrako tranbia*, banaketa-modu jakin bati erantzunaz: Lucasek, Mariak, Marcosek eta Marcosen andregai Romak bizileku duten mundutik kanpo, konbentzionala soil-soilik den mundua dago. Mundu konbentzionala zeharo konbentzionala da: erabat topikoa eta bakarrik topikoa izan dadin bilatzen da eta hala laukotearen mundu berezia azpimarratuago gelditzen da. Laukotearen mundua, berriz, ez konbentzionala da, baina konbentzionala ez bezala eraikitzen da, ekintza eta jokabide aurreikusgarriak ez aurreikusgarriekin nahasiz eraikitzen delako. Mundu konbentzionala osagai bakarrarekin eratzen da, ekintza eta jokabide aurreikusgarriekin soil-soilik, aldiz, ez konbentzionala osagai honi kontrakoak gehituz.

Agerraldi bakarra egiten duten pertsonaia-tipo batzuen esku uzten da topikotasunaren esparrua moldatzea. Pertsonaia bakar baten agerraldi ugari beste muturrean kokatuz, klaseen pilaketara jotzen da mundu konbentzionala irudikatzen eta klase bakoitza behin bakarrik testura ekartzen.

Pintzelkada desberdinak pilatuz sorrarazten da mundu konbentzionala, klase desberdinetako ordezkarien agerrera bakar eta motz-motzen bidez, sugar-pilaketa bat balitz bezala. Errepikatuz azpimarratzea, erakuskarien pilaketarengatik ordezkatu du *SPrako tranbiako* kontalariak: klase bat hautatu eta, klase horretako ordezkariaren jokabide konbentzionala nabarmentzeko ekintza konbentzionalak gauzatzen behin eta berriz testuratu ordezkariaren, klase desberdinetako ordezkarien metaketara jo du, erakuskariak pilatzera, klase bakoitza behin bakarrik ekarriaz. Hau da, klasea eraikitzeko aski du beronen agerraldi bakarra eta, klase desberdinak metatuz, itxuratzen du mundu konbentzionala: medikua, udaltzaina, auzokidea, familia... Klase desberdinon oinarri komuna jokabide konbentzionala erakustea da. Guztiek eginkizun bera eta bakarra dute: mundu konbentzionala itxuratu, mundu ez konbentzionala denarekin kontrasta dezan.

Azken finean, *SPrako tranbiara* ekartzen den pertsonaien galeria bitan banatzen da: ortodoxoak eta heterodoxoak. Ortodoxoak dira, “benetako baloreak” alboratuz, gizarte konbentzional bateko baloreei lotzen zaizkienak, heterodoxoak, berriz, “benetako baloreei” eusten dietenak. Bi taldeen arteko kontrastea aurkakotasuneraino eramanez, salaketa-iturri bihurtzen da: “benetako baloreak” baztertu izana salatzeke bitarteko da.

Tratu gizatiarra ez ematea salatzen da. Ospitaleko medikuak Mariari,

“–Aspertuta nauka zuen nebak”¹,

esatean, edo Lucas galtzen zenean,

“Besotik heldu, petriletik altxatu eta etxera laguntzen zuen udaltzainak, etxeko arrain tropikalei jaten ematen ariko balitz bezala” (87. or.),

adieraztean, Lucasi emandako tratua salatzen da. Medikuek edo udaltzainak kontu egin ziezaioketen Lucasi modu gizatiarragoan. Hala izan balitz ez zukeen sortuko aspertze-sentimendurik medikuarengan, ezta udaltzainak ere eramango etxera modu horretan. Medikuek eta udaltzainak jende-mota bat irudikatzen dute: beren eginbeharra betetzen dute, baina hoztasunez, gozotasun gabe, samurtasun gabe, aldamenean duten gizakiaren banakotasunean erreparatu gabe. Pertsona beste balore guztien gainetik duten Marcosen edo Mariaren jarrerarekin kontrastatzen dute.

Bada gizarte-arauen salaketarik. Gizarte konbentzionalak ez du begi onez ikusten *okupa* bat etxean hartzea: *okupak okupatu* duten etxetik bota egiten dituzte. Lucasek eta Mariak, beren etxean bizi izaten jarraitzea gonbidatzen dutenean Marcos, arau hori hausten dute. *SPrako tranbiako* kontalariak anai-arreben familiaren esku uzten du gizarte-arau honen urraketa salatzea: lehengusina Teresaren telefono-deiaren esku, hain justu. Mariak, berriz, beren jokabidea defendatuko du:

1. ELORRIAGA, Unai: *SPrako tranbia*, Elkarlanean, Donostia, 2001, 15. or. Aipamen guztiak argitalpen honetatik jaso dira.

“–Begira... etxean hartu duzuen mutil hori...
–Guk ez dugu hartu, bakarrik sartu da.
–Okerrago.
–Bera gustura dago.
–Begira... familiak uste du...
–Hara, familia.
–Hara ez; arauak, Maria.
–Arauak? Mesedez.
Klink utzi zuen Mariak telefonoa” (63. or.).

Teresaren jarrerak Marcos etxean hartu duten Lucas eta Mariarenarekin kontrastatzen du.

Tolerantziarik eza salatzen du. Auzokideen arteko haserrea erabat topikoa da, baita auzokideak besteen gorabehera eta joan-etorrien berri izatea ere, eta, zer esanik ez, besteen zarataz kexuak izatea. Rosariok auzokidea irudikatzen du, auzoa *zaintzen* du eta, zelatan egon ohi denez, auzokidearen mugimendu guztien berri du:

“Guztia zekien, hala ere, goiko pisuko auzokoez: ospitalean egon zirenekoa, Maria eskaileretatik jausi zenekoa, gazte koipezto hori etxean hartu zutenekoa. Eta ondo zekien jakin, egun hartan, Gabon zahar egunean, gonbidatu bat zutela. Neska ile gorria, dentistaren alaba” (83. or.).

Jasankortasun-izpirik gabeko auzokidea, enbarazurik txikiena sortu orduko, teilatupe berean beste batzuekin bizi izateak eskatzen duen eroapena, jokabide-mailako malgutasuna, alde batera utzi eta, enbarazua jasan gabe, auzokidearen aurkako neurriak hartuko ditu: Rosariok Gabonzahar gauean polizia deituko du, goiko pisukoen zaratak zirela eta. Hori gutxi ez dela, topikoa topikoaren gain eraikitzeko, kontalariak “izozkailuan 117 egun egondako legatza”rekin Gabon Zahar gaua ospatzen jarriko du Rosario. Besterik da anai-arreben etxean ospatzen den Gabonzahar gaua. Dena den, hauen artean ere, bada Gabonzahar gauaren eskakizun topikoen agerkaririk: huts egiten duen saioa izanagatik, Mariak Rosariorekin adiskidetzeko egiten duen saioa, hain justu.

Gizarte lehiakorra salatzen du. Lucasek gogoko du Olinpiadetako Jokoak telebistaz jarraitzea. Hona behin ikusi zuena: anilletako faborittoa zen Alexei Nemov ariketa bukatu gabe uzten, irabazi nahi ez zuelako. Orduan,

“Telebistako esatariak hiru harridura-marka esan zituen, hitzik gabe: !!!; gero esan zuen ‘Zer egin du?’ (...) ‘onartezina da Alexei Nemoven jarrera, lotsagarria’ zioen mikrofonotik” (49. or.).

Telebistako esatariak ezin onar dezake olinpiadak boikoteatzea. Gizarte kompetitibo bateko ordezkari legez, ezin uler dezake lehiatzeari uko egitea, irabazi nahirik ez izatea. Jarrera honekin kontrastatuz, Lucasek,

“inbidiazko besarkada bat bidali zion Alexei Nemovi” (50. or.).

Jarrera gregarioak salatzen ditu. Marcosen bulego-kideek jarrera gregarioak, taldekoiak dituzte. Alvarok, Elvirak, Miguelek, Pilarrek, Ruthek, Albertok... kafe-ordua heltzean, bat batean lana uzten zuten ondoko gelatxora joateko:

“Bertan ematen zuten krokodiloek ugalketarako lehen pausoa, lehen fasea. Luze gabe ezkonduko ziren beraien artean eta laster egongo ziren krokodilokumeak hazteko prest” (109. or.).

Lanaren morroi izanaz bizitzea salatzen du. Gorbatek irudikatzen duten klasea da. Jantzeraren osagarri hori bizitza-maila baten adierazletzat ez ezik, bizimodu baten adierazletzat ere hartzen du; alegia, bizitza-maila horri eusteko daramaten bizimoduaren adierazletzat. Beste aukera batzuen aurrean lanarekiko morrontza hobesten dute. Beste bizimodu bat eta, honekin batera, balore-mailako beste lehenetasun batzuk ditu Marcosek:

“Nahiago dut Lucas. Nahiago dut Maria” (96. or.).

Erakuskari zabal honetara ekarritako pertsonaiek ez dute inor harrutuko, jokabide zeharo aurreikusgarriak hartuko baitituzte. Berez ez dira ezta pertsonaia ere; klaseak baino ez dira. Batzuk, besteren zerbitzura dauden (edo egon beharko luketen) klase batzuen ordezkari: osasunaren zainzailea, herritarren zainzailea, berrien emailea. Medikua, udaltzaina, telebistako esataria... izen propioz ere desjabeturik, pertsonaia baten banakotasunaren eraikuntzan oinarritzkoena den ezaugarririk gabe azaltzen dira. Besteak, *gorbatak*, Marcosen bulegoko kideak, Rosario eta Teresa beste klase batzuen ordezkari dira. Lucas eta Mariaren auzokidea, edo beren lehenegusina, edo Marcosen bulego-kideak izen propioz izendatzen dituen arren, izen arrunt soilaren jabe direnak bezala, klase baten ordezkari izatera mugatzen dira: auzokidea, familia...

Gizartea osatzen duten klase batzuk zirriborrotzen dira. Trazurik gutxiengatik erabiliz, klase desberdinen karikatura egiten da, gizartea bere klase-aniztasunean irudikatzeko. Baina, aniztasuna itxurazkoa besterik ez da, azaleko agerpen anitz horiek euskarri bakarra baitute sakon-sakonean: gizarte konbentzionalaren balore-sistema. Balore-sistema horretatik erretzen diren jarrera eta jokabideak dira. Klase desberdinak pilatuz, klaseak batuz, klase desberdinen erakuskarira joz eta erakuskari bakoitza trazurik gutxiengatik azalduz, irudikatzen du gizarte konbentzionala eta bere baloreak. Aldaera bakar baten agerpen ugarien aurrean, aldaerak eta aldaera bakoitzaren agerpen bakarra hautatzen da.

SPrako tranbiako mundua bitan banatzen da: batetik, gizarte konbentzionala ordezkatzeko duten klaseak eta, bestetik, gizarte konbentzional hori irudikatzen duten klaseei bizkar emanaz bizi den laukotea: Lucas, bere arreba Mariarekin, eta Marcos bere andregai Romarekin. Dena den, laukotea ez dago erabat isolaturik, bai baitituzte beraiekin bat datozen pertsonaia, nahiz eta hauek, arrazoi desberdinak bitarteko, ezin bihur daitezkeen laukotearen

eguneroko bizitzako kide. Laukoteak irizkide lukeenetako bat Marcosek asmatutako biografiako pertsonaia da, goiz batean titere-teatroa egiten aha-
legintzen ari zen gizona, preseski. Bizitzan zehar bi munduak izan ditu bizi-
leku; izan ere, Marcosek dioenez,

“Bi gauza debekatu zizkieten txikitatik: bizikleta eta musuak ematea. Baita
ipuinak idaztea ere” (89. or.).

Gero, aitak unibertsitatean matrikulatu eta, ingeniari egin zen. Lanbide
horretan hasi zenez gero,

“iluntzeko zazpi eta erdietan ateratzen zen lanetik eta oso zoriontsua zen zortziak
laurden gutxiagotatik bederztiak arte” (89. or.).

Enpresan aurreratu ahala zoriontsu izateko denbora murriztuz doa, harik
eta egun batean bere ilobetako batek Elba ibaira begira ikusi zuen arte,

“goizeko hamaikak eta laurdenetan, galtzontzilotan. Hantxe erabaki zuen gustu-
rago zegoela lanera joan barik” (90. or.).

Txikitan afektibitate-adierazpenak eta jolasa galaraziz, gizatasunik gabe
utzi ondoren, lanaren morroi izatera igarotzen da, alienazio honekin hausten
duen arte. Mundu konbentzionalaren balore nagusi bati atxikirik bizi izan
ostean, jolasaren lehentasuna berreskuratzen du. Biografia labur eta baka-
rrean bi munduak kontrajartzen dira.

Marcosek asmatutako biografia honetako pertsonaiatz gain, Lucasen
lagun min Matias batzen zaio laukoteari. Lucasi idatzitako bi gutunetako
batean dioenez, bere aitak Madrilan ikas zezan nahi zuen, baina besterik
zuen berak jomuga: tranbia-gidaria izan nahi zuen. Hala izan zen. Beste gutu-
nean bera hil ondorenerako instrukzioak ematen dizkio Lucasi. Norberaren
bizitza eta, azken une arte, gainera, norberak erabaki behar duela aldarrika-
tzen du Matiasek bere bi gutunetan.

SPrako tranbiak mundu konbentzionalaren eta ez konbentzionalaren arteko
kontrastera jo du, bigarren hau azpimarratzea jomuga. Ez ditu, horratik, bata
eta bestea modu berean eraike; izan ere, mundu konbentzionala azaltzeko joka-
bide topikoz eta topikoz bakarrik, ekintza aurreikusgarritz eta aurreikusgarritz
bakarrik baliatzen den bitartean, tipikoa dena eta ez dena, aurreikusgarritz
dena eta aurreikusgarritz ez dena, nahasten ditu bestean. Bi mundu kontra-
jartzen dira, konbentzionala eta antikonbentzionala, baina antikonbentzionala era-
tzeko konbentzionalaz ere elikatzen denez, aurreikusgarritasuna gairiditurik
gelditzen da. Baloreak irauliz, besteen mundua ukatuz, estereotipoarekin haus-
ten du laukoteak. Eragiketa hau, ordea, besteen munduaz baliatuz gauzatzen
dute: balore-sistema mailan kokatzen da aurkakotasuna.

Lucasen biografia oso konbentzionala da: lanbidez arotza, gaztetan gerran
ibilia, Rosarekin ezkondu zen eta, honen heriotzaren ondotik, alargunduta bizi
da... Mariaren biografiari ere ez zaio konbentzionalismorik falta: maistra izan

zen, erosketez eta otorduak prestatzeaz arduratzen da... Marcosen bitzitan ere bada alderdi arruntik: ekonomista da, bulego batean lan egiten du... Roma ez da salbuespena: ginekologoa da eta ospitale batean lan egiten du...

Pertsonarik arruntenak egingo lituzkeen gauzarik tipikoenak egitea ez dute baztertzen: Lucasek eta Mariak, Domu Santu egunez, hilerrira bisita egingo dute; gauetan Lucasek, Mariak eta Marcosek telebista ikusiko dute... Pertsonarik arruntenak bezala, zenbaitetan haserretu egiten dira...

Elkarrekin harmonian bizi izanagatik ere bi belaunalditakoak, belaunaldien arteko tartea oso modu ezagun eta arruntean markatzen da. Horrela, zaharrek, Lucasek eta Mariak, adintsuei egozten zaien ezaugarria agertuz, gauzak errepikatzen dituzte:

“Horixe da adinekoen abilitadea, gauzak hirutan esatea, edo lautan” (31. or.)

esango du Marcosek, Mariak “–Gozo egon da afaria?” hiru bider galdetu ostean.

Edo zaharrengan, gazteengan ez bezala, oroitzapenak funtsezko lekua du. Baita Lucasengan ere, Marcosengan ez bezala. Oroitzapen horietako bat gerra da, gisa honetako gertaera bizi izan dutenen artean oso ohikoa dena.

Edo egungo irakurlearentzat, heldu samarrarentzat behintzat, ezaguna den moduan, belaunaldirik zaharrenak berezi egiten du gizonezkoaren eta emakumezkoaren jarrera bikotearen sexu-harremanetan: emakumea gizonezkoa baino lotsakorrago eta pasiboago agertzen da. Hala gogoratzen du Lucasek Rosa:

“‘beste bat, Rosa’ eta ‘ez, gero, etxean’ eta musuen dosifikazio hura: beti musu baten faltan, eta ‘ilun dago hemen, Lucas’ eta ‘hobeto’ eta ‘ez, hemen ez, gero, Lucas’; sobrako musurik ez, dosifikazioa beti” (47. or.).

Sexuaren araberako jokaera desberdin hau ez da atzematen Marcos eta Roma bikote gaztearengan: Romak Marcosekin dituen harremanetan erakusten duen portaera ez da Rosak Lucasekin erakutsi zuena bezalakoa.

Edo zaharrek bikotearen arteko harremana modu kontserbadoreagoan ikusten dute. Horrela, Marcos eta Roma bikotea Lisboaara joaten denean, Lucas eta Maria gure kulturen txertatutako adineko pertsonarik konbentzionalenak bezala azaltzen dira:

“‘baina badakizu, gazteak’, eta ‘ondo egiten dute’, eta ‘ondo egiten ez badute ere, honezkero eginda izango dute egin beharrekoa, han, Lisboaako hotel batean, ezkondata egon ez arren’. Edo are diabolikoagoak diren kanpin batean” (126. or.).

Baina, aldi berean, hain aurreikusgarria den mundu honekin hautsi egiten dute anai-arrebek. Belaunaldi gazteari legokiokoen rola hartuz, esaterako.

Hala, kale bazterretan edo estazioan gitarra joaz zebilen Marcosek “–Bulegolanen bat bilatzen hasiko naiz” esaten dienean, “–Zertarako?” galdetzen du Mariak, “–Eta gitarra?”, berriz, Lucasek (93. or.).

Edo *okupa* bat hartzen dute etxean.

Edo lapurra toleratzen dute. Mariak,

“Lucasi esan zion:

–Badabil norbait.

–Marcos izango da.

–Kanpoan da Marcos.

–Lapurrak izango dira orduan. Joateko esango diet?

–Ez. Utzi. Beharrizana izango dute” (127. or.).

Azken buruan, pertsonaia heterodoxoak ortodoxoengandik bereizten dituen zera da: gauza topikoak egin eta esateaz gain topikoak ez direnak egin eta esaten dituztela. Heterodoxoengan, ortodoxoengan ez bezala, nahasketa dago: tipikoa eta atipikoa denaren arteko nahasketa, aurreikusgarria eta aurreikusgarria ez denaren arteko nahasketa. Nahasketa bidez moldatu diren pertsonaia hauek, nahasketarik gabe moldatu diren haiekin kontrastatzen dute. Batzuk, osagai bakar batez eraikita egotean, karikatura itxura hartu dute, besteak, bi osagaien nahasketa izatean, karikatura gaindizten dute.

Zeinahi alderditatik begiratzen dela, bitxitasuna darie nahasketatik sortutako pertsonaiei: bizitza errealean problematikoak diren egoerei modu ez problematikoan aurre egiten diete, hedatuena ez den balore-sistema dute jokabide-euskarri... Aurkakotasuna nagusitzen da munduaren eta *SPrako tranbiako* laukotearen artean. Dena den, testuaren barnean bertan bilatu da kontrastea, bizilagun heterodoxoz ez ezik, ortodoxoz ere jendeztatu delako, oraindik gehiago nabarmentzeko heterodoxo horien jokabide bereziak.

2. ESZENA / ELISIOA

Denbora zehazgabe batean gertaturiko jazoerak kontaktzen ditu *SPrako tranbiak*. Istoriotik kanpo kokatuz kontaktzen duen kontalariak sei egun argitan eta sei iluntzetan banatzen du gertaeren kontakizuna. Baina, gertaeren iraupena ez da sei egunetakoa, ez da astebetekoa; are gehiago, ez da denbora laburra.

Lucasek Marcosi esaten dionez “Zati bi dituzte egun gehienek: egun argia eta iluntzea” (39. or.). Egun argia bizitzeko, gauzak egiteko omen; iluntzea, berriz, bizi izandakoa kontatzeko. Lucasek telebistako dokumental batean ikusi eta Marcosi esandakoa, bere egingo du kanpo-kontalariak eta istorioa kontatzeko elementu egituratzaile bihurtuko, sei egun argitan jasoaz pertsonaiek bizitakoa eta sei iluntzetan bizitakoaz kontaktzen dutena. Haatik, fikzioaren denboraren iraupena ez da sei egunetakoa, baizik eta denbora

zehazgabe batekoa. Bere zehazgabetasunean, gainera, gehiago da denbora luzea, denbora laburra baino. Ikusi besterik ez dago sei egun horietan Marcosen bizitzak ezagutzen dituen aldaketak: lanbidez aldatzen du, gitarra jotzen ibiltzetik bulego-lanera igaroz; maitemindu egiten da; bidaiak egiten ditu Lisboa eta Nepalera... Kontatzen diren gertaeren iraupena zehazten ez den arren, luze samarra dela ondoriozta daiteke (hilabeteak, urteak...). Honela bada, kontalariak sei egunetako gertaeren berri ematen duenean, egun horietako bakoitzaren iraupena ez da egutegiak eta erlojuak ezartzen duena, iraupen mugagabea baino, kontalariaren hitzek beraiek noiz edo noiz agerian uzten dutenez. Hala, laugarren egun argian, Maria eskaileretan erortzeak eta gripearen birusak makaltzen dutenean, esaterako, honela dio kontalariak:

“Asteak eman zituen Lucasek arreba makalik zegoela ohartu gabe” (105. or.).

Fikzioaren denboraren iraupena laburra denean ere, tarte labur horretan gertaturiko guztia kontatzeko *lekurik* ez badu kontalariak eta aukeratzea beharrezko badu, aukeraketa-lan handiagoa eta nabarmenagoa du fikzioaren iraupena luzea denean. Fikzioaren iraupen labur batean pasatutako gorabehera guztiak jasotzea ezinezkoa baldin badu kontalariak, are ezinezkoago du iraupen luze batean jazoriko guztiari leku egitea: hautatu egin behar du zer kontatu eta zer ez.

SPrako tranbia kontaketa ehun eta berrogeita hamahiru orrialdez osaturik dago. Berez laburra den leku hau, gainera, ez du betetzen bakarrik kanpoko kontalariak kontatzen duen istorioak, beste idatzi batzuetara irekitzen den kontaketa moldatzen baitu. Kanpo-kontalariaren ahotsak adierazitako istorioaren erdigunean dauden pertsonaiek egindako idazlanetara zabaltzen da testua: Lucasen ariketetara, honen arreba Mariaren ipuinerara, Lucasen lagun Matiasen gutunetara, Marcos gaztearen eta honen andregai Romaren idatzietara. Honela bada, urria zen leku narratiboa, are urriago gelditzen zaio kanpo-kontalariari pertsonaien idatzi hauei tarte egitean. Iraupen luze samarra duen istorioa berbaldi bihurtzean, kanpo-kontalaria aukera nabarmenak egitera behartuta dago: eszena-multzoa isiluneekin konbinatzea hautatu du.

Eszena-aukeraketara jotzen du iraupen mugagabeko istorioa kontatzeko: pertsonaien bizitzako zenbait egunetako ekintza batzuk hautatzen ditu testura eramateko; are gehiago, egun batzuetako uneak hautatzera iristen da. Gainontzekoa, isildu egiten du, modu inplizituan isildu ere.

Zeinahi alderditatik begiratzen dela, eszena-multzo batek osatzen du *SPrako tranbia*: kontaketa erdigunean dagoen pertsonaietakoren batek (batzuk) egun batean burututako jarduerak kontatzeko eszena batzuk hautatu eta gainontzekoa isildu egiten du: eszenak eta isiluneak konbinatuz aurrerartzen da istorioa. Gainera, pertsonaiak egunaren tarteren batean egindakoak, beste pertsonaiaren batek tarte horretan edo beste tarteren batean egindakoekin txandakatzen ditu: jauzi egiten du pertsonaia bat edo batzuk protagonista dituen eszenatik, beste pertsonaiaren bat edo batzuk protagonista dituen eszenara. Lekuren batean pertsonaiaren batek edo batzuk garatzen du(t)en ekintza-sail jarraitua eman ostean, beste lekuren batera igarotzen da

kontalaria beste pertsonaia batek edo batzuk garatzen duten ekintza-sail jarraitua emateko. Demagun, laugarren egun argia: lanpostu bat eskuratzeko Marcosek egin duen oposizioari buruzko xehetasunekin batera, lehenbiziko lan-egunean berari dagozkion eginkizunez ematen dizkioten azalpenei tartea egiten zaie lehen-lehenik; jarraian Mariak eskaileretan izan duen istripuaren berria eta beronek eragin dituen ondorioak –Marcosek bere gain hartzea etxearen eta bertakoen gobernua– adierazten dira. Hortik Romak Marcosi telefonoz agindutakoaren gorabeherak jasotzera igarotzen da eta, biharamunean agindutako hori, agindu bezala, nola betetzen den esatera. Segidan, plazan Lucasek hildako lagunekin egindako batzarra azaldu eta, “egun argi” hori amaitzeko, berriro jokalekua aldatuz, Marcosen lantokira doa kontalaria, honen lan eta pentsamenduen berri emateko.

Pertsonaia baten ekintzen jarraikotasuna etenez eta, beste pertsonaia baten edo batzuen ekintzen kontaketa tari tartea eginaz, moldatzen da *SPrako tranbiako* kanpo-kontalariaren berbaldia. Begi bistakoa da pertsonaia desberdinen ekintzak aldi berean gertatu izanagatik, berbaldiak, diskurtsoak, ezin ditzakeela aldi berean jaso. Honenbestez, aipatutako laugarren egun argi horretan, zenbait pertsonaia desberdinek aldi berean egindako ekintzez jardunda ere, ezingo zukeen aldi berean eman, bata bestearen segidan baino. Segida horretan, ordea, ez du bilatzen pertsonaia desberdinen ekintzak jarraikotasun bat adieraziz ematea, *iraganbidea* egingo luketen esaldien bidez, pertsonaia desberdinek protagonizaturiko eszena desberdinak lotuz joatea. Bestela jokaten du: eszenok elkarrekin harremanetan jarriko lituzketen lokailuen erabilerara jo ordez, eszenok bata besteari lotzeko lokarriez baliatu ordez, etenez baliatzen da. Gisa honetan, beren arteko harremana etenaren gainean eraikitzen duen eszena-multzo bat testuratzu eta, pertsonaiek protagonizaturiko eszena batetik besterako tartean burututako ekintzak testutik ezabatuz, aurreratzen da istorioa, nola laugarren egun argian, hala gainontzeko egunetan.

Oraindik modu zatikatuagoan eman ditzake kontalariak pertsonaia baten edo batzuen egun argi bateko ekintzak: beste pertsonaien ekintzen kontaktan gehiago tartekatuz, hain zuzen ere. Adibidez, Lucasek eta Mariak Domu Santu egunez hilerrira egiten duten bisitaldia zatikatuago ematen du kontalariak bigarren egun argian: lehen eszena batek etxetik hilerrira irtetear utzi eta, Marcosen ekintza eta pentsamenduen berri ematera igarotzen da, berriro Lucas eta Mariarengana itzultzeko eta aurreko eszenari beste eszena baten bidez jarraipena emateko, hilerrirako bidean gertaturikoak jasoaz. Atzera moztu du hilerrirako bidaia, beste bi eszena tartekatuzko: batak, Maria du protagonista, berak jasotzen baitu gizarte-arauak gordetzeko eskatuz, lehengusina Teresak egindako telefono-deia; beste eszenak, Marcos ohiko lekura gitarra jotzera joan ez izanak Romarengan eragin duen urduritasuna du kontagai. Jauzia eginaz, Lucas eta Maria protagonista dituen eszenara doa berriro, hilerrian gertaturikoak azaltzeko eta, hemendik Marcos eta Romak protagonizaturiko eszena batera doa bigarren egun argi honi amaiera jartzeko.

Eten, pilatu, isildu zutabeen gain eraikitzen du kontaketa: eszena batetik besterako iraganbidea markatuko luketen lokailuak ezabatuz eta, pertsonaia

desberdinek gauzatutako ekintzen kontaketa txandakatuz testuan, etenak sortzen ditu; eszena baten ondotik beste bat ekarri, eszenak pilatuz doa eta, azkenik, pertsonaia batek edo batzuk protagonizaturiko eszena batetik pertsonaia berak protagonizaturiko hurrengo eszenarako denbora-tartean egin duenaren arrasto oro deuseztuz doa, eszenen arteko isilune inplizituak zabalduz.

Ehun eta berrogei eta hiru orrialdeetan *SPrako tranbia* bizileku duten pertsonaiei sei egunetan zehar gertaturiko gauza guztiak ezin konta daitezke, are gutxiago konta daitezke kanpo-kontalariak egun horietako gorabeheraz azaldukoari bost pertsonaien idatziak gehitzen zaizkienean, are gutxiago, oraindik, sei egun horiek errealak gabe sinbolikoak izaki, erreferente bezala denbora mugagabea dutenean, denbora mugagabe luze samarra, gainera. *SPrako tranbiako* kanpo-kontalariak eszena batzuk ematea eta gainontzekoa isiltzea hautatu du. Pertsonaia batek edo batzuk protagonizaturiko eszenei berez elisioek jarraitzen diete, harik eta berriro beste eszena baten bidez beste ekintza batzuk testuraten diren arte. Pertsonaia batek edo batzuk protagonizaturiko eszena batetik bestera dagoen tartean egindakoak eta esandakoak dira isiltzen direnak. Eszenaratzen dena, isilunez inguratuz, azpimarratua gelditzen da.

Ez dago mailaketarik, gradaziorik. Kanpo-kontalariak denbora mugagabe horretan gertaturikoak testuratzean, ez du bilatu hainbeste gertaera horien arteko lehentasunak bakoitzaren kontaketa eskaintako masa linguistiko ugariago edo urriagoaren arabera ezartzea, baizik eta modu zorrotzago eta nabarmenago batez: izatea emanaz ala deuseztuz. Eszenaren bidez erliebea ematen die egun batzuetako gertaera batzuei eta, horrela, gertaera horiek azpimarratzen ditu, batetik, kontatu egin dituelako eta, bestetik, elisioek inguratzen dituztelako. Fikzioak irauten duen denbora mugagabe horretan gertaturikoak berbaldiratzean, gertaeraren kontaketa emandako luzeraren arabera gertaera horien munta mailakatzea baino gehiago, trazu nabariagotara jotzeko joera erakusten du, kontagai izaera emanaz ala ukatuz. Egunduetako ekintzei garrantzia emanaz, testuratu, gainontzeko egunetakoa isildu: elisioak are erliebe handiagoa ematen dio kontatutakoari. Horrela jokatzuz, ez da lausotzen, difuminatzen eszenak azaldukoak: eszena batek kontatutako ekintzetatik beste eszena batek kontaturiko ekintzen arteko tartean berri emateak lekuak mailakatzea ezereztzen da. Tarteak ezabatu, tarte horiek arreta desbidera ez dezaten. Ekintza batzuk aukeratu dira kontatzeko eta iraganbideak isiltzen. Kontraste honekin jokatzuz eszenak erakutsitakoa azpimarratuago gelditzen da.

3. GEHIKETA ETA EZABAKETA ERAGIKETAK

Kanpo-kontalariak kontatzen duen istorioaren egituraketan nabarmentzen den kontrastea –eszena/elisioa– utzi eta, unitate txikiagoei erreparatuz (esaldia, pasartea,...), kontraste berriak atzematen dira. Bi eragiketa bide lortzen ditu kontraste horiek: gehiketa eta ezabaketa. Unitate txikiago hauetan, dela elementuak ezabatuz edo, dela elementuak gehituz, azpimarratu egiten du.

Unitate linguistikoak ezabatzen ditueanean, adierazi nahi duen hura bakar-bakarrik gelditzen delako, biluzik gelditzen delako. Komunikazio-testuinguruak eman dezakeen informazioa deuseztuz, informazio berririk eman gabe arreta barreia dezakeen elementu oro saihestuz, arreta gune bihurtu nahi den hura deigarriago azaleratzen da eta, honenbestez, azpimarratuago agertzen.

Noiz edo noiz unitate linguistikoen ezabaketaz baliatzen da Lucas bere ariketetan:

“Eta kontaktzen zidan nolako neskak, han, Australian” (21. or.).

“Gainera gutxi irakurri izan dut (...). Nik aldizkariak batez ere. Mendikoak eta” (21. or.).

Baita kanpo-kontalaria bera ere:

“Eta iltze zorrotz bat eramaten zuen tailerretik eta gurpiletako uherrean irudi txikiak egiten zituen eta irudi batzuk leku berean zeuden astebetegarrenean, trenak atzera garbitzera ekartzen zituztenean, baina beste batzuk ez; euria ziurrenik” (86. or.).

“Euria ziurrenik” dio hitz-ezabaketa nabarmena bide.

Zehar estiloan ez-ezik, estilo zuzenean ere atzeman daiteke:

–Non dago Lucas, Maria?
–Idazten.
–Zertarako?
–Burua ez galtzeko” (50. or.).

Elkarrizketa ezin izan daiteke, ez laburragoa, ez arinagoa: beharrezko ez den elementu oro deuseztu da, hala nola solaskideetako baten izena. Jakina, komunikazio-testuinguruak emandako informazioa hitzez ez adierazteak, besteak beste, arintasuna ematen dio elkarrizketari.

Baina, hitz-ezabaketaren eragiketaz gain, hitz-gehiketarenaz ere baliatzen da:

“Sosegua zen Maria. Gauza bakarra egiten zuen arin: eskailerak jaisten zituen arin Mariak” (104. or.).

Begi bistakoa da bigarren esaldiaren bigarren atala askoz modu laburragoan esan daitekeela: errepikatzeak ezaba zitzakeen, baita aditz-laguntzaileen bat ere. Ez du horrela jokatu; izan ere, bilatzen den efektua azpimarratzea da. Horretarako batzuetan hitzak ezabatu egiten dira; bestetan, gehitu. Modu batean ala bestean markatzea da jomuga eta, markatu, nabarmentzeko. Batik bat gehiketaren eragiketara jotzen du eta honen barnean hitz-errepikatzeak erakusten du maiztasunik handiena: azpimarratu nahi den hura errepikatzen da. Errepikatze hori, berriz, hamaika modutan ematen da. Mariak, esaterako, bere ipuinaren bosgarren emanaldia,

“Diru mordoa hartu dut” (120. or.),

esanaz hasi eta, horren inguruko xehetasunak eman ostean, gertaerak sorrazitako jarduna ixteko, esaldia errepikatuko du:

“Horrexegatik hartu dut diru mordoa” (120. or.).

Nabarmendu nahi den hura doa lehen-lehenik, jarraian xehetasunak erantsi eta, bukaeran, nabarmentze-ekintza hori indartzeko errepikatu egiten da. Xehetasun horiek leit-motiva eratzen duen esaldian ere, tarteka daitezke. Hala gertatzen da, Mariaren ipuineko hirugarren emanaldian:

“Ez nuen negarrik egin. Horrexegatik nago honela. Ez nuen hileta-elizkizunean negarrik egin” (56. or.).

Edo Lucasen ariketaren bigarren emanaldian:

“Aroztegia ere. Berrogeita hamar urte eman ditut aroztegia” (36. or.).

Edo kanpo-kontalariaren berbaldian bertan:

“Batez ere zerua. Lisboan zerua zegoen batez ere. Kafetegiak, (...) ere bazeuden, baina zerua zegoen Lisboan batez ere. Eta Roma eta Marcos tranbia batera igo ziren, ezin zirelako zerura igo” (130. or.).

Ahots desberdinen ezaugarri da unitate linguistikoak errepikatzea. Marcozen idatzietan ere atzematen da, bere lehen idatziaren hasieratik bertatik, gainera:

“Neuk ere askotan pentsatzen dut ohean. Eta pentsatzen dut, esaterako, gehiegi irakurtzen dudala. Edo pentsatzen dut (...)” (54. or.).

Beste aldaera batez baliatzen da bigarreanean. Honela ematen dio hasiera:

“Negar egitekoa izan da” (76. or.).

Ondorioa azpimarratu nahi du. Horretarako idatzia ondorioarekin hasi eta, garapenean, behin eta berriz errepikatzen du. Errepikatze baten eta bestearen artean kausak erantsiz doa, ondorio hori eragin duten kausak, hain zuzen ere. Ondoriotik kausara doa, berriro ondorioa errepikatzeko eta, kausak eranstean joateko, harik eta “negar egitekoa izan da, halaber”-en ondotik erantsitako kausek amaiera jartzen dioten arte. Teknika berbera darabil Marcosek bere laugarren idatzian, Marcos subkomandanteak sorrarazten dizkion sentimenduak azaltzean:

“Ez dakit estimatzen dudan, gorrotatzen dudan, maite dudan” (114. or.).

Jarraian sentimendu-mailako ezjakintasun hau eragiten duten faktoreak azalduko ditu eta hitz berberei beste bat gehituz ondorioztatuko:

“Eta ez dakit tipo hori estimatzen dudan, gorrotatzen dudan, maite dudan” (114. or.).

Azpmarratzeko darabilen baliapide hau –hitz edo esaldien errepikatzea– aldaera-modu ugaritara irekiz azaleratzen da. Hala, beste aldaera bat atzematen da Marcosen bosgarren idatzian:

“Ahalegin handia egin dut jazza gustatzeko” (140. or.),

baiespena eta gero, baiespenaren oinarriak azaldu eta, hitz-ordenaren aldaketara joko du ondorioztatzean:

“Horregatik egin dut nik ahalegin handia jazza gustatzeko” (140. or.).

Edo Lucasek bere lehen ariketan ordena sintaktikoaren aldaketara jotzen du:

“Zortzimilako mendiak maite ditut nik” (21. or.).

“Nik zortzimilakoak maite ditut” (21. or.).

“Zortzimilakoak maite ditut nik eta harako espedizioak eta hango zerua” (22. or.).

Kontalari desberdinak anaforz baliatzen dira. Nola kanpo-kontalariaren ahotsean –“Eta Mariaren arima altzairu gorrizkoa bazen ere, desegin egin zen (...). Eta Mariaren arima ikus zitekeen sukaldeko zorutik zabaltzen” (130. or.)–, hala Marcosenean –“Nahiago dut Lucas. Nahiago dut Maria” (96. or.)–, edo Mariarenean topa daiteke:

“Nola zabaldu zidan bere etxeke atea eta gerritik helduta sarrarazi ninduen eta nola kendu zidan abrigoa eta nolako keinu lizunez piztu zituen afariko kandelak eta nola gero” (34. or.).

Esaldiaren hasiera errepikatuz sorrarazitako kadentzia eten eta, aurre-rago, itzul daiteke hasiera hori errepikatzerara. Honela hasten du Mariak bere ipuinaren seigarren eta azken emanaldia:

“Badira zazpi egun hiri honetara heldu nintzenetik. Badira zazpi egun estazio-tik irtetea erabaki nuenetik” (138. or.).

Emanaldia bukatzeaz daukala berriro bihurtuko da hitz-giltzarriak errepikatzerara:

“Badira zazpi egun estaziotik atera nintzenetik “ (139. or.).

Errepikatzeak hartzen duen tarte zabal honetan, anaforen erabilera ez ezik, epiforarena ere atzeman daiteke. Marcosen idatziaren bosgarren emanaldian irakur daitekeenez:

“Eta gogoratzea. Rosa gogoratzea, mendiak gogoratzea, Angel gogoratzea, tranbiak gogoratzea” (140. or.).

Erdiko posizioan ere koka daitezke errepikatzen diren hitzak:

“Probatzeko esaten zidan Pilarrek. Komunean sartzeko esaten zidan, gauzak gogoratzer” (34. or.).

Bada beste prozedurarik ere unitate linguistikoak azpimarratzeko: estilo-aldaketa bidez errepikatu. Zehar estiloan emanikoa berriro eman daiteke estilo zuzenean, estiloen arteko hurrenkera hau berau gordez, edo kontrakoa jarraituz:

“Geratzen zitzaion bizi apurra bastoian sartu zuela uste zuen Lucasek (...). ‘Geratzen zitzaion bizi apurra sartu zuen hemen anaiak’” (17. or.).

Hiru bider errepikatzeraino hel daiteke, estilo-konbinazio honetaz baliatuz:

“Egunak zati bi dituela esaten zion Lucasek Marcosi. Zati bi dituzte egun gehienek: egun argia eta iluntzea” (39. or.),

esan ostean, gertaera honek eragindako jarduna ixtean, ondorio gisa, berriro jasoko ditu hitz horiek:

“Zati bi ditu egunak, beraz: egun argia eta iluntzea” (40. or.).

Edo modu jarraikor batean azal daitezke hiru errepikatzeak:

“baina biharamunean emango ziola, ‘bihar emango dizut; gaur ospitalera joan behar dut’; biharamunean emango ziola, beraz” (105. or.).

Azpimarratzeko erabilitako funtsezko prozedura delarik, hamaika aldaera desberdinen bidez gauzatzen da errepikatzea. Formula bakarrera jotzea saihestuz, monotonia eta uniformetasunetik urrunduz, errepikatze-modu desberdinen erakustoki da testua, erakustoki zabala, gainera.

Mugarri jakin batzuen barnean egiten dira errepikatzeak; izan ere, ez dute gairiditzen kanpo-kontalariak kontaturiko istorioko eszenaren barrutia edo pertsonaia-kontalarietarikoren baten idatzikoa bada, idatzi horren emanaldiaren markoa. Eszena eta emanaldia dituzte jarduera-eremu, behin izan ezik. Behin patroia eten eta errepikatzeak eszenaren mugarrira igarotzen du. Salbuespen honek, salbuespena delako, hain zuzen ere, errepikatzeen jarduera-eremuan testuan barrera moldatu den araua urratzen du eta arau-hausketa honen bidez, baita beste arau bat ere: eszenak etenaz testua eratzearena.

Jadanik azaldu denez, etenak ezartzen du eszenen arteko harremana. Irudikatu eta guzti egiten da eten hori: kanpo-kontalariak kontaturiko istorioan tarte zuri batek eta izartxo batzuk markatzen dute eszena batetik besterako jauzia. Eszenak etenaz aurkeztea da *SPrako tranbiako* kanpo-kontalaria eraikiz

doan araua, behin bakarrik urratuko duen araua, hain justu. Urratzeko bidea, berriz, bikoitza da. Erabilitako bitartekoetariko bat unitate linguistikoak errepikatzea da, beste errekkurrentzia, berriz, sentsazio-mailakoa da.

Lehen egun argiko lehen eszenaren amaierak dioenez, Marcosek,

“Errepidean bertan askatu zuen gitarra zorrotik eta Lucasi gustatzen zitzaion kantu hura hasi zen jotzen. Autoek bozinaka ekin zioten, ahakar egin zion gizon batek espaloitik, udaltzain bat zetorren auzotik.

Leioha zabaldu zuen Lucasek entzun ahal izateko, harik eta ezulka hasi zen arte. Hotz handiegia. Leihatea berriro itxi zenean joan zen Marcos estaziorantz” (42. or.).

Modu honetan itxi lehen eszena eta bigarrena erakustera igarotzen da: Marcosen bizipenak estazioan. Hirugarrenean, eszena-tokiz aldatuz, eszena-protagonista ere aldatzen du: Maria du protagonista. Honakoa da, berriz, laugarren eszena osoa:

“Errepidean bertan askatu zuen Marcosek gitarra zorrotik. Autoek bozinaka ekin zioten, ahakar egin zion agure batek espaloitik, udaltzain bat zetorren auzotik. Kantua jo zion, hala ere, Lucasi, eta jo zion: *por las paredes ocras; eta gero jo zuen se desparrama el zumo, eta apur bat geroago de una fruta de sangre, eta ondoren kantatu zuen debe ser primavera, besteak beste.*

Leioha zabaldu zuen Lucasek entzun ahal izateko, harik eta ezulka hasi zen arte. Leihatea berriro itxi zuenean joan zen Marcos estaziorantz”² (46. or.).

Aipamenean azpimarratu dena da laugarren eszena honek lehen eszenari eransten dion informazio berri bakarra, gainontzekoa ia hitzez hitz errepikatzen baita, lehen eszenako “hotz handiegia” ezabatuz.

Aitatutako lau eszenotan urratzen da eszenen arteko harremana etenaren gain eraikitzearen araua. Lehena eta laugarrena hitz-kate mailako berdintasunak lotzen ditu. Sentsazio-mailako errekkurrentzia bat da lauen arteko lotura.

Gorago egindako aipamenean ageri denez, Lucasek *hotza* nabaritu zuela esanaz ixten da lehen eszena. Bigarren eszenak, Marcosek estazioan bizi izandako gorabeherez diharduenak, besteak beste, ume batekin izan zuen elkarrizketa jasotzen du. Honela amaitzen da Marcos eta umearen arteko elkarrizketa:

“–Ni ez naiz pobrea –azaldu zion Marcosek, labezomorroak gogoan–. Eta zu... zu pobrea zara?

–Ez, ni ez: ordu piloa egiten ditu aitak etxetik kanpo” (43. or.).

2. Azpimarratua gurea da.

Jarraian, eszena bukatzeko, Lucasen pentsamenduaren berri ematen du kanpo-kontalariak:

“‘Hotza’ pentsatu zuen Lucasek leihatearen ondoan” (43. or.).

Pentsamendu honek ixten du eszena. Lucasen pentsamendu hori testuratzean *SPrako tranbiako* kanpo-kontalaria bi alderditan lerratzen da istorioa kontatzean eratzen doan arautik. Bata, eszena bakarrean tokiz eta pertsonaiak aldatzea da, bestelako joera nagusitzen denean kontaktetan: eszena barnean batasuna gorde, jauzi horiei uko eginaz. Beste arau-urraketa eszenak lotzea da, etena nagusitzen denean eszena batetik besterako iraganbidean. Lucasek nabaritzen duen *hotz* sentsazioak lotzen ditu bi eszenak.

Hurrengo eszenak, hirugarrenak, araua jarraituz eszena-tokiz eta protagonistaz aldatzen du, baina aurreko eszenari lotuz, sentsazio termikoari erreferentzia eginaz hasten den neurrian:

“‘Beroa ez da beroa soilik’ pentsatzen zuen Mariak udan” (44. or.).

Laugarren eszenak, esan bezala, ia hitzez hitz jasotzen du lehen eszenaren amaiera.

Temperaturak lotzen dituen eszenak dira laurak. Sentsazio termikoa komun dute lau eszenok, termometroak neurtzen duen temperatura izan, nahiz neurgailu horri ihes egiten diona.

Araua eraikiz eta arau-eraikuntzak sorrarazten duen aurreikusgarritasuna saihestuz hezuramaitzen da *SPrako tranbiak* kontaktzen duen istorioa. Etena ezarri eszenatik eszenarako iraganbidean, baina noizbait hautsi arau hori; unitate linguistikoen errepikatze-lekua eszenara edo emanaldira (pertsonaien idatzietan) mugatu eta, salbuespen moduan, urratu araua... Eta aurreikusgarritasunak saihestean, beti azpimarratu egiten du. Baita, unitate linguistikoak ezabatuz edo gehituz, adierazpen neutro edo estandarretik urrutiratzen denean ere.

4. DENBORA ZEHAZGABETIK, DATAK, ORDUAK, MINUTUAK, ZEHAZTERA

Esana dago *SPrako tranbian* kontaktzen diren gertaeren iraupena mugagabea dela eta iraupen mugagabeko istorioa eszena batzuk hautatuz ematen dela. Hau da, pertsonaien bizitzako egun argi batean (egutegian zeharo mugagabe gelditzen den egun batean) edo iluntze batean (egun argia bezain mugagabea) kokatzen da kontalaria eta, egun argi-iluntze horietan pertsonaiek protagonizaturiko eszena batzuk testuratzen ditu. Eszena horiek ez dira lekutzen denboraren ardatzean: zehazgabea da gertaeraren jazoera-unea, baita gertaera batetik besterako tartea ere. Maiz trukagarria ere izan zitekeen eszena horien arteko hurrenkera: iluntzetan telebistan ikusten dutela esaten dena iluntzez trukagarri izan zitekeen edo egun argiz Lucasek egingandako zenbait irteeraren kontaketa-hurrenkera trukagarri izan zitekeen.

Hainbat eszenen hurrenkera trukagarri izatearen zergati nagusietariko bat honakoa da: bizi izandakoak ez eragitea pertsonaiarengan. Denbora igarotzen da eta denbora igaro ahala bizipen berriak dituzte pertsonaiek: Marcos maitemindu egiten da eta maitemindu ondorengoak dira bere andregai Romarekin dituen harremanak; edo Marcos bera lantegi desberdinetan jardutera heltzen da –kalean gitarra jotzen ibiltzetik bulego-lanera–; edo denboraren joanean Lucasen ahalmen fisiko eta psikikoen galera nabarmena izango da, harik eta heriotzaren atarira ailegatzen den arte. Gertaera hauen garapenean aurreratze bat dagoen neurrian, hurrenkera kronologikoa jarraituz kontatzeak ordena jakina ezartzen die testuratutako eszenei. Baina, Marcos eta Romaren arteko harremanen berri ematen duten hainbat eszena ordenaz aldatu ahal izango lirake; baita Lucasek bizi izandakoari eskainitako hainbat eszena ere, edo gauez telebistan ikusitakoa jasotzen duten eszenei emandako hurrenkera bera. Denboraren igarotzea esanahitsu ez bihurtzeak zilegiztaten edo, behintzat, errazten du eszenen ordena trukatu ahal izatea, edo gertaeren iraupena hain mugagabe gelditzea. Bilakaerarik ez dakarren denbora da: pertsonaiaren bizipenek ez dute eragiten bere psikologian. Ezer bilatzen ez duten eta inolako gatazkarik erakusten ez duten pertsonaiez hornitzen den kontaketa batean, denboraren igarotzeak igarotze mekaniko soila dakar. Pertsonaia zaharragoa da, baina geldirik dagoen denbora psikologikoa da. Geldirik dagoen denbora psikologikoa, berriz, ez du bilakaeradun psikologiaren eskakizunik. Denboraren joanean bizi izandako esperientziek ez dute eragiten *SPrako tranbiako* pertsonaiengan. Izaera-modu honen jabe egin dituen pertsonaiei gertatutakoak kontatzean, denboraren ardatzean kokatu gabe ematea erabaki du kontalariak.

Kontatzen dituen gertaeren iraupena ezkutatu duen kontalari honek, ordea, zenbait ekintzari data jartzen dio. Horrela jokatzeko datadun gertaera hori azpimarratu egiten du, kontrakoa delako istorioaren kontaketa eraikiz doan araua: jazoerak denboraren ardatzean kokatzen ez dituen kontaketa kontrastea sorrarazten du noizean behin gertaeraren bati eransten zaion denbora-markak. Baina, denbora-marka honek ez du inolako informaziorik ematen denboraren ardatzean, data zehatz horretan gertatutakoaren eta gainontzeko gertaeren artean dagoen denbora-harremana ezin ezar daitekeelako. Denbora-marka izanda ere, beronen ekarria ez da denbora-mailakoa: datek ez dute laguntzen gertaeren arteko denbora-harremana zehaztera. Besterik da beren egitekoa: ekintzarik gehienek ez daramaten markaren jabe direlarik, gertaera azpimarratu. Esaterako,

“Irailaren zazpian heldu zen egun hori, abuztuaren hogeita zortzian hel zitekeen bezala” (44. or.),

esanaz nabarmentzen du kontalariak Mariak bere burua apain-apain jarri, liburutegira joan eta Juan Rulforen liburua eskatzen duen eguna. Irailaren zazpiko data horrek ez du balio Mariaren ekintza hau bere gainontzeko ekintzekin, edo gainontzeko pertsonaien ekintzekin, denbora-harremanetan jartzeko; besterik da bere eginkizuna: egun horretan Mariak egin zuena azpimarratu. Ematen duen data, data bezala erabat arbitrarioa da, ez delako inolako ekarririk egiten gertaera istorioaren garapenean kokatzeko.

Hainbestearaino eraikitzen du testuak arau bezala denbora-markak denborazko informaziorik ez ematea, non gertaera denborazko ardatzean kokatzen duen data trukagarritzat jotzera hel daitekeen. Romak Marcosi telefonoz opari bat iragarri ostean, honela dio kontalariak:

“Eta Marcosek buruan eduki zuen oparia arratsalde osoan, biharamuna irailaren 29a zelako edo apirilaren 2a; ez zelako egun seinalatua” (105-106. orr.).

Berdin da data bat ala beste, berdin ez dena zera da, oparia egun seinalatu bati erantzuna izatea ala ez.

Gertaera bat azpimarratzeko erabiltzen diren data arbitrario hauekin batera, data motibatuak daude, baina hauek ere ez dute inolako ekarririk egiten gertaerak denboraren ardatzean lekutzera. Topikoa nabarmentzean dago beren egitekoa. Motibazio bati erantzun diezaioke Domu Santu eguna hautatzeak hilerrira bisita egiteko, motibazio bati erantzun diezaioke, halaber, Gabon Zahar gaua hautatzeak, luzaroan izozgailuan eduki duen arraina afaltzen jartzeko Rosario eta, Lucas eta Maria bere auzokideekin haserre dela esan ostean, Mariak berarekin adiskidetzeko egiten duen saioaren berri emateko. Data topikoak dira egiteko horientzat: hilerrira bisita egiteko, izozgailuan egunak egin dituen arrainaz afaria atontzeko, baketze-saioak bideratzeko. Nahita jotzen da data topiko batera, topikoa azpimarratzeko, hain justu.

Era berean, topikoaren esparrua azpimarra dezake, Mariak bere ipuinaren amaierari eransten dion datak, “apirilak 5” (139. or.). Data honen eginkizuna ez da *SPrako tranbian* kontatzen den gertaera-segidan ipuinaren amaiera-eguna kokatzea. Ez da denboraren ardatzean informazioaren bat ematera datorren marka, baizik eta egutegiko data daramaten gertaerak oso urriak diren testu batean, egun gogoangarri bat azpimarratzera datorrena: egitasmo bat errealitate bihurtu den eguna. Sortzaile askoren jokabidearekin bat eginez, Mariak amaiera-data jarritz jarrit du ipuina.

Zeinahi denbora-markari heda dakioke datez esanikoa: beren egitekoa ez da denbora-mailan gertaera kokatzea, baizik eta gertaera azpimarratzea. Eransten den denbora-unitate ororekin bilatzen den efektua nabarmentzea da:

“Marcos Lisboan zegoen Romarekin, horregatik ari ziren Maria eta Lucas telebista ikusten arratsaldeko bostetan, bestela pasean ibiliko ziren hirurak” (126. or.).

Ordua zehaztearen eginkizuna jakina da: telebista ikustea iluntzetako eginkizun izaki –iluntzea baita egun argiz bizi izandakoa kontatzeko garaia–, arau honen urraketa adieraztea, ohiko bizimodutik irteteak eragindako egun-antolaketa berezia seinalatzea.

Data eta orduaz azaldutakoa, minutuei ere heda dakiekie. Denbora mugagabe batean jazoerak kokatzea erabaki duen kontalaria, minutuek ematen

duen denbora-zehaztasunera hel daiteke, baina, gainontzeko denbora-markekin gertatzen den bezala, bere ekarria ez da denbora-mailakoa izango. Hala, larritasuna helarazteko bitarteko izan daiteke, 132-134. orrialdeen artean garatzen den eszenan:

“Ahots mehe bat entzun zuen Marcosek ohetik. Maria orduantxe hartu zuen loak. Goizeko seiak eta bi”.

“Zazpiak laurden gutxiagotan agertu zen Maria eta zer daukazu galdetu zion Lucasi”.

“Zortzietan etorri barik zegoen medikua. Marcos zortzietan sartzen zen lanera. Maria zazpi eta erdietatik esaten ari zitzaion joateko lanera”.

“Medikua zortziak eta hogeian heldu zen”.

Lucasek arnasa nekez hartzeak eta bakarrik egotean arnasestua larritzeak eragin duten denbora-neurketa da. Erlojuaren orratzek emandako denbora-datuak, Lucasen egonezina ez ezik, egoera horrek Maria eta, batik bat, Marcosengan sorrarazi duen ardura adierazteko bitarteko moduan darabiltza. Denboraren ardatzean gabe, sentimenduak azpimarratzearenean funtzionatzen duen denbora-marken pilaketa da.

Edo segundoen markak adierazten duen denbora-zehaketara hel daiteke. Horrela erakusten du kafe-orduaz jarduterakoan:

“Baina, bat-batean, Alvaro altxatzen zen lehenengo. Zazpi segundoren buruan Ramon. Handik gutxira Elvira. Miguel ondoren. Pilar. Ruth. Alberto... Hogeita hemeretzi segundo beranduago, bulego ondoko gelatxoan zeuden guztiak” (109. or.).

Denbora-markak, berriro, beste esparru batean ezartzen du marka; izan ere, portaera jakin bat azpimarratzera dator: jokabide taldekoa, gregariora.

Denbora zehazgabean gertaturiko ekintzen berri ematen den *SPrako tranbian*, kontrastatu egiten dute denbora-markaz horniturik datozen ekintza gutxi batzuk. Denbora-unitate desberdinen erakustoki da testua, baina, zeinahi dela ere denbora-unitate hori, bere egitekoa ezaugarri horrekin markatua datorren ekintza azpimarratzea da.

5. KONTAKETA ITERATIBOTIK KONTAKETA SINGULATIBORA

Kontaketa iteratibotik kontaketa singulatibora igarotzea da gertaerak azpimarratzeko darabilen beste baliapide bat. Antzekoa den gertaera-multzoa berbaldi bakar batean biltzetik gertaera bakarrarentzako berbaldia eraikitzea doa. Kontaketa iteratiboak markoa jarri eta, marko horretan kokatutako gertaera bati, erliebea ematen zaio, kontaketa singulatiboaz baliatuz. Maiztasun batekin gertatzen denaz jardun ostean, marko horren barnean behin gertatu zena azaltzera bideratzen da, hain zuzen ere. Denbora zirkularretik denbora

linealerako jauzia egiten du, maiztasun batekin errepikatzen den sentimendu, ekintza edo jarrera adierazpen bakar batean biltzetik, behin modu berezi batean sentitutakoa edo egindakoa bakar-bakarrik jasotzen duen adierazpena doa. Denbora zirkular horrek moldatutako hondoan denbora linealean gertaturikoa txertatzean, erliebea ematen zaio.

“Abenduak pozik jartzen zuen Marcos, urtero” (40. or.),

esanaz eszenari hasiera eman eta, hurrengo pasarteetan kontaketa iteratiboarekin jarraitu ondoren, kontaketa singulatiborako jauzia egiten da, aditz-formen aldaketak agerian uzten duenez:

“Baina antzeko poza sentitzen zuen Marcosek udaberriaren hasieran edo Santa Ageda edo Domu Santu egunean... eta orain abendua zen eta abenduko poza tokatzen zitzaion.

Tiranteak jantzi zituen Marcosek, (...)” (41. or.).

Behin eta berriz darabilen baliapidea da. Hona Maria protagonista duen eszena baten eraikuntza:

“Beroa ez da beroa soilik’ pentsatzen zuen Mariak udan” (44. or.).

Hurrengo bi pasarteetan kontaketa iteratiboarekin jarraitzen du:

“Lucasek gabardina janzen zuenean sufritzen zuen Mariak gehien, udan”,

esan ondoren bigarren pasartearen lehen esaldian, honela hasten da hirugarrena:

“Urtaro aldaketa zekarren egun horren zain egoten zen Maria, beraz” (44. or.).

Baina, laugarren pasartearen hasieran, aditzaren forma aldatuz, kontaketa singulatibora igarotzen da, egun batean Mariak egin zuenaren berri ematera, hain justu:

“Irailaren zazpian heldu zen egun hori, abuztuaren hogeitazortzian hel zitekeen bezala. Berrogeita hiru minutu eman zituen Mariak orrazten (...). Hiru eraztun jarri zituen (...)” (44. or.).

Egun jakin bateko gertaera hautatzen du bere bakantasunean kontatzeko, beste egun batzuetako jazoerak, berriz, edo ezabatuta daude, edo ohikotasunaren alderditik jasota. Eguna zehaztean eta kontaketa iteratibotik singulatiborako jauzia egitean, azpimarratu egiten du Mariak gauzatutako ekintza: dotore jarri, liburutegira joan eta Juan Rulforen liburua eskatu.

Kontaketa iteratiboa eta singulatiboa konbinatuz doa kontalaria, behin gertaturiko jazoera berezia enmarkatzeko eta nabarmentzeko.

“–Gauza bakarra egiten zuen arin: eskailerak jaisten zituen arin Mariak”,

baiespenarekin adierazitako ekintza iteratiboari ekintza iteratibo horrek behin batean eragin zuen efektuaren kontaktak jarraituko dio:

“Halako egun batean, bigarren eskailera-mailan zegoen sugus-papera zapal-duta laprast egin eta maletarik fakturatu gabe egin zuen hegan” (104. or.).

Pertsonaia baten ekintza iteratiboa ez ezik, pertsonaia baten zaletasuna izan daiteke marko-jartzailea:

“Hatz erakusleaz sudurreko mukiak erauztea bezainbeste gustatzen zitzaion Marcosi pertsonaia edadetuen biografiak asmatzea” (88. or.).

Zaletasun hori garatzeko lekurik aproposenera jo –“Hiri handietako ude-tan biltzen ziren biografiarik aberatsenak”– eta, biografia konkretu bat asma-tzera igaroko da:

“Goiz hartan, esaterako, titere-teatroa egiten ahalegintzen zen gizon bat ikusi zuen Marcosek katedralaren ondoko iturrian” (88. or.).

Pertsonaiaren ohituraren batek ere jar dezake markoa:

“Ohitura eredugarri bakarra zuen Marcosek: lantzean behin komunean sartu, ispilutik hurbil-hurbil jarri eta bere begiei begiratzen zien” (111. or.).

Hurrengo pasarteak behin batean gertaturikoaren berri emango du:

“Egun batean konturatu zen, ordea, hutsuneak zituela betileen artean eta begiak ukitu orduko (...) (111. or.).

Hainbat eszena eratzeko darabilen prozedura da: maiztasunen bat duen gertaeraren baten, zaletasunen baten, edo ohituraren baten berri emanaz hasi eta, “egun batean” kokatzera igaroz, gertaera iteratibo, edo zaletasun, edo ohitura horietatik erne den pasadizoren baten kontaktarekin osatu eszena.

Jakina, *SPrako tranbiako* eszena guztiak ez dira eraikitzen kontaketa ite-ratiboa eta singulatiboa konbinatuz. Hala balitz, kontaketa eraikitzeke erabi-litako arau soila litzateke eta, bistan denez, eszena orotara hedatutako baliapidea balitz, eszena batzuk nabarmentzeko ahalmena galduko luke. Bada eszenarik kontaketa singulatiboaz bakarrik baliatzen denik, baita esze-narik kontaketa iteratiboaz soil-soilik baliatzen denik ere. Esaterako, Luca-sek trenak garbitzeko lekura egindako bisitaldia azaltzeko kontaketa iteratiboa darabil kontalariak, nahiz zehar estiloaz, nahiz estilo zuzenaz, baliatzen denean, estilo zuzenaz adierazitakoari ere balio iteratiboa ematen baitio:

–Berriro, Lucas? –esaten zion udaltzainak.

Lucasek ez zuen ezagutzen, harik eta aurrez aurre jarri eta bizarra ikusten zion arte.

–Nora zoaz, Lucas?

–Behe-lainora –erantzuten zion– edo etxera” (86-87. orr.).

Eszena modelikoa da zentzurik hertsienean: bi pertsonaien arteko elkarrizketak behin baino gehiagotan elkarri esandakoa irudikatzen du. Elkarrizketa-tipoa da, eszena-tipoa, eszena eredugarria: behin eta berriz esandakoaren eredu.

Honela, kontaketa iteratiboak eginkizun desberdinak beregana ditzake kanpo-kontalariaren berbaldian. Batzuetan maiztasunen batekin gertatzen dena behin bakarrik kontatzeko bide besterik ez da: dela Lucasek trenak garbitzeko lekura egindako bisitaldiak edo Marcosen bulegoko kafe-orduak (108-109. orr.). Beste batzuetan egiteko honi beste bat gehitzen dio: markoa jarri behin gertatzen eta behin kontaktzen denari. Egiteko hau bereganatzen duenean, kontaketa iteratiboak jarritako markoan erliebea hartzen du kontaketa singulatiboaz baliatuz kontaktutako pasadizoak eta horrela pasadizoa nabarmentzen da. Bi kontaketa-moten kontrastetik sortutako efektua da, kontaketa singulatiboa bide kontaturikoa nabarmentzea bilatzen duen efektua, hain zuzen ere.

6. GERTAERA-LEKU ZEHAZGABETIK DETAILEAK ZEHAZTERA

Denboraren ardatzean ez ezik, lekuarenean ere, ez dira zehaztasunez kokatzen kontaktzen diren gertaerak. Jazoerak ez dira garatzen hiri edo herri jakin batean, ez dira garatzen izen propioa daraman hiri edo herri batean (erreferente ezaguna duena izan, nola erreferente ezagunik gabekoa). Izen propioak gabeko hiri edo herri hori ez da, ezta ere, deskribatzen, gertaera-leku txikiagoak deskribatzen ez diren bezala: Lucasek eta Mariak bisitatzen duten hilerrria edo berauen etxea, kasu. Kontaktzen diren gertaerak leku zehazgabeetan jazotzen dira: mugatze-prozesu batetik urrun daude izen propio baten jabe ez izatean, eta, batik bat, jakina, beren nolakotasuna azaltzea baztertean. Gertaera-lekuaren nolakotasuna gaingiroki ere ez da emango, gutxiago, noski, xehe-xehe. Leku-deskripzioek eragindako pausa gutxi dago *SPrako tranbiako* kanpo-kontalariak kontaktzen duen istorioan: pausa hauek ez dute askorik eten eta “gelditu” ekintzen kontaketa, ez leku narratibo handirik xahutu. Testuinguru honetan, testua eratuz doan patroin honen argitan, bada kontrasterik: gertaera-lekuak deskribatzeari, zehazteari, uko egin dion kontalariak gertaera-leku horietako detaile txiki-txiki batzuetan erreparatu du. Testua eraikiz doan arauarekin –gertaerak leku zehazgabeetan jazotzen dira– kontrastatu egiten du detaile txiki batzuk azaltzeko erabiltzen den zehaztasunak. Beren egitekoa, ordea, ez da gertaera-lekua zehazten laguntzea: lekuren baten detaileei buruz emandako berriak beste zerbait nabarmentzeko bitarteko bihurtzen dira, pertsonaiaren ekintza edo aukeraren bat azpimarratzeko bide, hain zuzen ere. Bestela esanda, lekuren baten gainean emandako xehetasunek egindako ekarriez ez da baliatzen lekua koordinada narratiboa, baizik eta beste koordinada narratiboren bat. Denbora koordinada narratiboaren erabileran atzeman-

dako ezaugarria lekuarenera hedatzen da: nahiz batean, nahiz bestean, emandako berriak beste koordenada narratibo baten eraketarako baliapide bihurtzen dira.

“Lucas eta Mariaren etxetik hilerriraino egurrezko hogeita bederatzi balkoi zeuden” (62. or.),

dio kontalariak. Bide horren nolakotasunaz ematen duen detaile bakarra da. Detaile hau, berriz, ezin koka daiteke marko orokorrago edo zabalago batean, bide horri buruzko beste xehetasunik ez delako ematen. Bideaz emandako detailea ez da, ez lekua zehazteko datu, ezta alferrikako “bete-lana” ere. Berehala baliatuko da kontalaria detaile horretaz:

“Eta egurrezko hamazazpigarren balkoiari begira zegoela ongarri-meta bat zapaldu zuen” (62. or.).

Pertsonaiaren ekintza konkretua kokatzea zuen helburu eta, kokatzean, ekintza hori eta ekintza horrek eragindako efektuak azpimarratzea. Leku mugagabeen garatzen diren gertaerak nagusi diren testuan, Lucasen ekintzari erantzen zaion leku-detailea, testu osoan dauden bakanenetakoa da. Ondorioz, leku-detaile horrek Lucasen ekintza nabarmentzeko duen ahalmena begi bistakoa da. Pertsonaiaren ekintza, jarrera, nahi, egoera... azpimarratzeko bitarteko da lekuaz emandako xehetasuna.

Lucas, hildako lagunekin elkartzera, plazara joaten denean, jokabide berbera erakusten du kontalariak. Ematen dituen datuei so, plaza den toki horretan dagoen gauza bakarra eserlekua da, ez baitago plazari buruzko beste xehetasunik. Plaza gaingiroki kokatu –“Itsasoari begira zegoen plaza” (106. or.)– eta, Lucasen eskutik, plaza horretako elementu bakar batek erakartzen du kontalariaren arreta:

“Harrizko petrilean eseri zen. Herrikoak harrizko petrilean esertzen ziren, ez egurrezko bankuetan. Kontu inozoa iruditu zitzaion orain Lucasi: udaberria zen eta harrria berotu gabe zegoen. Egurrezko banku batera aldatu zen, lagunek errieta egingo ziotela ondo zekien arren. (...).

Gazte talde bat zegoen Lucasen ondoan. Ez zioten itsasoari erreparatzen. (...) Harrizko petrilean zeuden jarrita, hori bai” (107. or.).

Lekuaz emandako datu urri eta desberdinei probetxua ateratzen zaie kontaktetan. Ez dago alferrikako “bete-lanik”: detaile bakoitzak eskakizunen bati erantzuten dio. Plazaren kokapenaz –itsasoari begira– esandakoari etekina ateratzen zaio pertsonaia batzuen jarrera azaltzeko erabiliz: itsasoak ez du plazan dagoen gazte taldearen arreta erakartzen.

Plazako eserlekuen nolakotasuna pertsonaiaren ezaugarri bat azpimarratzeko bitarteko bihurtzen da: adina eta bere ondorioak bizitzako ekintzarik txikienetan; izan ere, gazteak harrizko petrilean eserita zeuden hotzik somatu gabe, Lucas zaharrak hotz hori somatu duelako, egurrezko bankuarengatik ordezkatu behar du.

Lekua koordinada narratiboaz ematen dituen xehetasunak objektu konkretu batzuen nolakotasunaren ezaugarriren batean erreparatetik sortzen dira. Objektu konkretu horiek ez dira enmarkatzen, ez dira marko zabalago batean kokatzen. Markoaz abstrakzioa eginaz, marko horretako objekturen bat atzeman eta, objektuan atzemandakoa funtzional bihurtzen da: bere nolakotasunaz emandako ezaugarri urriek ekarriren bat egingo dute pertsonaiaren ekintza, jarrera, egoera... azpimarratzera. Nabarmentzea jomuga izaki, jomuga erdiesteko bide bat, nabarmendu nahi dena soil-soilik erakustea da. Gisa honetan jokatuz, arreta gunea mugatzen da, ez baitago arreta gunean kontzentratzea barreia dezakeen elementu sekundariorik: funtsezkoak diren deskripzio-ezaugarriak bakarrik seinalatu, ezaugarri horiek gehiago distira dezaten. Hala, gertaera-leku zehazgabean atzemandako objektu zehatza eta bere ezaugarriak azpimarratuago gelditzen dira, objektu hori bakarrik, markorik gabe, ikusten delako.

Laburbilduz, gauza txikiak erakartzen du begirada eta ez handiak. *SPrako tranbiak* kontatzen duen istorioa partikularizatu gabeko, banakotu gabeko gertaera-lekuan garatzen da eta, honenbestez, mugatu gabe geratzen da; dimentsio txikiko zerbait zehaztera jotzen da bakar-bakarrik. Honela bada, marko orokorra ezabatu eta, marko orokor batekiko erreferentzian ezin atzeman daitezkeen objektu konkretu batzuetan erreparatzen du bertan geldituz, berauei buruzko xehetasunen bat edo beste emateko. Objektu hauen deskripzioak ez du inolako ekarririk egiten gertaera-lekua koordinada narratiboa zehaztera, objektua ez baita kokatzen beste objektuen artean, aitzitik, isolaturik aurkezten den leku-xehetasuna da.

SPrako tranbiako kanpo-kontalariak kontatu istorioak taxutzen duen patroiarekin –gertaera-leku zehazgabea– kontrastatu egiten du leku batzuetako objektuak –eta objektuak soilik– deskribatzeak. Deskripzio honek ez du inolako ekarririk egiten gertaera-lekua zehaztera; besterik da bere egitekoa: pertsonaiaren ekintza, jarrera, egoera... azpimarratu.

Tratamendu berbera ematen zaie leku-denborazko koordinadei. Bata eta bestea mugagabetasunaren ildo jarraituz eraiki eta, ildo honekin kontrastea bilatu, detaile batzuk zehaztuz.

7. HITZA GOZAMEN-ITURRI

Kontrastea bide nabarmendu: horra hor *SPrako tranbian* erabiltzen den prozedura nagusienetakoa. Denbora mugagabe batean gertaturiko jazoeren berri emateko eszenak eta elisioak konbinatzea hautatu du: etenaz doan eszena-segida isilunez inguratzen du, eszena nabarmenago geldi dadin. Eszena horiek berbaldu bihurtzean, zenbaitetan, adierazpena elementu erredundanteetatik askatzeko, unitate linguistiko batzuk ezabatzen jotzen du, maiztasun handiagoarekin, berriz, unitate linguistikoak errepikatzen: eragiketa horiek bide sortutako adierazpenak kontrastatu egiten du halako lantze berezia izan ez duenarekin eta, horrela, nabarmenduta gelditzen da. Gainera, leku-denborazko koordinada mugagabeetan garatzen den istorioko zenbait

ekintza denbora-marka zehatzez edo leku-detaile batzuen deskripzioz hornitzen direnez, ekintza hauek marka berezi baten jabe bihurtzen dira, horrelako markak oso urriak diren testuinguru batean eta, honenbestez, azpimarratuak ageri dira. Azpimarratuta geratzen da, halaber, maiztasunen bat duen gertae-raren baten berri eman ostean, behin batean ohikotasun horretatik ernetako jazoera berezi bezala aurkezten dena: kontaketa iteratibotik singulatibora igarotzean, kontaketa-modu honen bidez adierazitakoari, erliebea ematen zaio. Orobat, kontrastea erabiltzen da pertsonaien eraikuntzan, *SPrako tranbian* tarte txiki baten jabe diren pertsonaia ortodoxoek pertsonaia heterodoxoak gehiago nabarmentzeko eginkizuna dutelako.

Zer da, ordea, azpimarratzen dena? Pertsonaia batzuen ekintzak eta izaera. Leku-denborazko koordenaden erabilera, istorioa josteko modua, nola esaldi-mailan hala esaldiaz harantz,... guztia, pertsonaia batzuen ekintzak eta izaera azpimarratzen bideratzen da, pertsonaia heterodoxo batzuk itxuratzera: beren ametsak, sentimenduak, jarrerak, zaletasunak,... nabarmentzen, hain justu.

Beren erraiekin konforme bizi diren pertsonaiak dira *SPrako tranbiako* bizilagun heterodoxoak eta, inguratzen dituen mundu konbentzionala onesten ez badute ere, ez dira bizi mundu horrekin gatazkan. Balore-sistema konbentzionalago eta hedatuagotik, jakinaren gainean urruntzen diren pertsonaiak izan arren, ez dute inolako ahaleginik egiten besteen balore-sistema aldatzeko: horiei jaramonik egin gabe bizi izatea da beren aukera. Besteak ez dituztenez arazo bihurtzen, ez dute ezer egiten gizartean nagusi den balore-sistema iraultzeko. Marcosek ez du gatazkarik sorrarazten “gorbatadunekin”, edo ez du ekintzarik abiadan jartzen Sierra Leonan egiten dituzten mutilazioak galarazteko... Matiasek bere aukera pertsonalari eusteko aitarekin gatazkarik izan bazuen edo bere hiletetarako emandako instrukzioek deserosotasunik sortu bazuten, ez dago tirabira horien arrastorik testuan. Testuan jarrera antikonbentzionalak erakusten dauden pertsonaiek ez dute besteak erakartzea bilatzen: jarrera bat erakusten dauden pertsonaiak dira, balore-sistema batekiko atxikimendura mugatuz beren jardura. Horregatik *SPrako tranbian* itxuratzen den mundua, dinamikoa baino gehiago estatikoa da: geldirik dagoen mundu idilikoa, mundu gozoa,... aurkarien arteko harremana bata besteari jaramonik ez egitean oinarritzen den neurrian.

Erro-erroan dagoen ikuspegia honetara laburbil daiteke: kontaketa heroiak gizartearekin, munduarekin duen konpromiso bakarra uste batzuen arabera bizi izatekoa da, baina, gehiengo uste horiekin bat ez badator, heroiak ez du bere gain hartzen gehiengo hori konbentzitzeko eginkizuna, ez du inolako ekintzetara jotzen gehiengo hori bere usteetara erakartzeko. Heroiak ez du burutuko inolako balentriarik, bere ustez gizatiarragoak diren baloreen arabera bizi izan daitezten gehiengoak: bere mikrokosmosean bizi da eta, mikrokosmos horretatik kanpo dagoena, batzuetan begiratu besterik ez du egiten, bestetan, begiratu eta iruzkindu.

Ekintzen eragilea ez da, ez erraiekin gatazkan egotea, ezta mundu gizatiarrago bat lortzea ere, baizik eta bakoitza bere gogara bizi izatea: bere hel-

buru, amets, zaletasun, sentimendu eta abarri erantzunaz bizi izatea. Nahiak pertsonalak dira soil-soilik eta, muga hori gainditzean, heterodoxian kide diren-etara heltzen da, bakar-bakarrik: beren mikrokosmosera.

Lucasek badu ilusiorik, badu ametsik: dela ziklistak pasatzen ikustea, dela Marcosen kantuak entzutea,... eta, batik bat, zortzi milakoak: mendiei buruzko aldizkariekin gozatzen du edo telebistan Shisha Pangmarako azken espedizioaren erreportaia ikustearekin. Bere ametsa –Shisha Pangmaren gailurrera igotzea– heriotzaren atariko ameskerian betetzear ikusiko du: hara daraman tranbian da bere emazte Rosarekin batera.

Mariak badu helbururik: nahiz bere anaia Lucasen ongi izaterik hoberena bilatu, nahiz gaztetako zaletasun zuen idaztea garatu, ipuin bat eginaz.... Marcos eta Roma bikote gaztearengana heda daitekeen ezaugarria da. Marcosek lanbide erosoagoa bilatuko du –gitarraz eta kaleko hotzaz pixka bat aspertuta zegoelako–, edo bera etxean hartu duten anai-arreben behar desberdinak asetzea gogoko du. Baita bere zaletasunak garatzea ere: pentsatu, biografiak asmatu... Romak Marcosi mezuak bidaltzen dizkio, Lucasi koadroa oparitzen dio, atsegin du koadroak pintatzea... Hitz batean, beren nahia beren gogara bizi izatea izaki, nahi hori betetzea bilatzen dute. Beren gogara bizi izate hori, berriz, honela zehatz daiteke: norberaren zaletasun, helburu edo ametsak betetzeaz gainera, “besteren” nahiak betetzen lagundu. Alabaina, “besteren” hori ez da mugagabea, oso mugatua baino: norberaren kidea da, norberaren filosofia bereziarekin bat datorrena; hortik kanpo dagoen munduari bizkarra ematen diote.

Mikrokosmosaren erresuma da *SPrako tranbia*; izan ere, amets eta ilusio pertsonalak gauzatzeak dakarren garaipena nor bere buruaren gobernurako eskuratutako irabazia da eta, marko hau gainditzen duenean, komunitatera eginaz ekarria, oso komunitate txikia da lorpenaz gozatzen duena: irizkide den laukotea.

Haatik, gizartea aldatzeko ekintzarik burutzen ez duten arren, pertsonaia heterodoxo hauen testigantzak salatu egiten du beste balore-sistema baten arabera bizi direnen jarrera. Zalantzarik gabe, sakontasun eta seriotasun handiko gaiez dihardu *SPrako tranbiak*: gizakiaz eta bere utopiez, ametsaz, baloreez... eta, baloreen alor honetan, lehentasunak ezartzen ditu, argi eta garbi ezarri ere. Pertsonaren behar eta nahi desberdinak asetzea bilatzea beste gauza guztien gainera dago. “Bestearengan” pentsatu, “bestearen” ongi izatea eta zoriona bilatu, “bestearen” aukera pertsonalak errespetatu... Badirudi honako goiburu honi erantzun nahi diola: pertsona da balorea. Hori da etengabe azpimarratzen dena *SPrako tranbian*: pertsonaia heterodoxoen esan eta ekintza desberdinek duten oinarri komun da, nahiz prozedura desberdinak erabiliz nabarmentzen direnenak, nahiz gainontzekoenak. Esan eta ekintza guztiak aldaerak baino ez dira: balore-sistema berbera aldarrikatzeko eta azpimarratzeko “anekdota” edo eszena-multzoa osatzen dute. Balore-sistema hau aldarrikatzearekin batera, beste lehentasun batzuk dituen balore-sistema salatzen da: lanari lehentasuna ematea, tratu gizatiarra ez ematea,...

Ez da nolanihi egindako salaketa, horratik; izan ere, badirudi kontrastearen erabilera honaino hedatzen dela: salatu jolas eginaz.

Gai serioak dakartza, baina gaien seriotasuna seriotasunez desjabetuz. *SPrako tranbia* ez da gai serioetat modu transzendentean hitz egiteko lekua, ez da salaketak modu transzendentean egiteko tokia³. Modu zehatz batean istorio bat testuraz duen kontaketa laburra da eta ez saiakera filosofiko edo soziologikoa. Kontaketa zehatz honek gai gatazkatsuez dihardu edo behintzat gai gatazkatsuek aipatzen edo iradokitzen ditu, baina lanak eragindako alienazioaz, edo heriotzaz, edo gurasoek seme-alaben bizitza erabaki nahiaz, edo jokabide gregarioetat edo, beste hamaika gairi erreferentzia egiten dienean, ez dira gatazka moduan planteatzen; ezta pertsonaien arteko haserreak beraiek ere aurkezten dira modu gatazkatsuan. Modu batean edo bestean gatazka deusezten da.

Bestalde, *SPrako tranbiako* kontalaria eta pertsonaiak ez gai serio horiek jorratzeko, ez beste lehentasun batzuk dituen balore-sistema salatze baliatzen dira argumentazioaz. Oso bestela jokatzeko dute. Argumentazioaren lekuan, arrazoia erabiliz azalpenak eman ordez, ideia batzuk defendatu eta beste batzuk baztertu partez, beste baliapide batzuen erabilera jo dute. Baliapide nagusia azpiulertua da: igorle-hartzaileen arteko konplizitateari etekin handia ateratzen zaio. Zeinuaren interpretatzaileen esku uzten da zeinuaren ulerkuntza. *SPrako tranbiak* hitzaren erabiltzaileen (igorlea eta hartzailea) esku berebiziko parte hartzea uzten du; izan ere, igorleak ez du azalpenik ematen, edo berbaldi logikoarekin hausten duten agerpenetara jotzen du, edo ironiaren edo umorearen erabilera... Batera edo bestera, igorleek garrantzitasuna, gordintasuna eta garrantzia kentzen diote esaten dutenari eta modu esplizituan egindako salaketa saihesten dute. Igorleak ateraldiaz, esateko modu zorrotzaz, burutsuaz, alogikoaz... baliatzen dira beren pentsamendu eta ekintzen berri ematean eta, modu horiek arindu egiten dute mezuraren zama salatzailea. Gisa honetan igorleek hartzailearen konplizitatearekin jokatzeko dute, hartzaileari egotzen dioten esperientzia, ezaguera eta jarrerarekin: egotzen dioten jakiturian oinarrituz, badakite ez duela azalpen beharrik, ez duela argumentazio beharrik eta aipamen edo iradokizun soila aski duela. Igorle horientzat hartzailea gai da aurkezten diotena jasotzeko, nahiz erabilitako berbaldia azpiulertuz betea egon, edo sarritan logikaren legeak ez jarraitu.

Laburbilduz, igorle horiek jakitun dira beren berbaldiak aurkezten dituen "hutsunez", "bete gabe", "osatu gabe", modu esplizituan esan gabe alderdi asko utzi izanaz, baina, hartzaileari egotzen dioten munduaren ezagueraren esku utzi dute "hutsune" horiek betetzeko eginkizuna. Igorleek nahi bezala burutu dezan eragiketa hau, hartzailearen irakurketa kontrolatzea jomuga duten zantzuz eta seinalez hornitu dute beren verbal-

3. "¿No le parece que su novela está llena de ternura?" galderari gisa honetan erantzuten zion Elorriagak: "–Sí, pero he intentado darle un toque de ironía y surrealismo para no quedar en sensiblería", *El Diario Vasco*, 17 de marzo de 2003, 80. or.

dia, modu esplizituan esan gabe doanaren inplikazioez jabe dadin, hain zuzen ere.

Hitzaren igorlea ateraldira, esateko modu zorrotzera, burutsura edo alo-gikora... joz, urrutiratu egiten da gertaeraren laztasunetik. Hainbat pasarte ekar daiteke baiespenaren lekuko, baina, aipamenen pilaketa saihestuz, aski izan bitez telebistak emandako bi berrik eragindako iruzkinak. Bata, Mozambiqueko uholdeez emandako irudiak eragindako iruzkina da: “Baina helikoptero gutxiegi zegoen Mozambiken; edo pertsona gehiegi” (93. or.). Bestea, Sierra Leonan egiten dituzten mutilazioek Marcosengan sorrarazten duten gogoeta da: “Marcosek pentsatu zuen ‘mutilare’ hitza latina dela eta bokal batzuk laburrak direla eta beste batzuk luzeak” (137. or.). Salaketei garratzasuna kenduta ere, azalpena ezabatuta ere, irudikatutako eszena nahiko adierazgarria izango da munduaren ezaguera pixka bat duen hartzai-learentzat.

Hitzaren erabilera bereziaren barrutian kokatzen da *SPrako tranbia*. Hitzarekin eta hitzarekin bakarrik dago konprometiturik. *SPrako tranbiako* pertsonaia heterodoxoek beren erresuma berezia eraiki dute eta, erresuma horretatik begiratzen eta epaitzen dute mundua: ez dute mundu hori aldatzeko ezer egiteko asmorik, ez dute hartzen horrelako konpromisorik. Beren konpromiso bakarra beren uste eta nahien arabera bizi izatea da. Beren hitzak ez du bilatzen munduak euskarri duen balore-sistema iraultzea. Azalpenak, argumentuak... soberan daude. Hitz transzendentea, munduak euskarri duen balore-sistema iraultzeko erabiliko litzatekeena, hitz “intranszendenteagatik” ordezkutzen da, hitzari ideiak eta usteak igortzeko bitartekari legez transzendentsia kentzen zaiolako, hain zuzen ere. Are gehiago, badirudi hitza zeinahi sinesbide adierazteko bitartekari izatetik askatu nahi dela, baita miresten edo omentzen den sinesbideren baten berri emateko bitartekari izatetik ere. Batek baino gehiagok esango luke *SPrako tranbiak* literatura omentzen, edo miresten duela, edo literaturgile batzuk bai behintzat. Horretarako aski luke Marcos eta Maria pertsonaiengana jotzea eta literatura zenbaterainoko eta nolako arreta gune duten aztertzea. Azterketa hori alboratuz, ilustrazio gisa, azterlan honetan aipatu den xehetasun bat ekarriko da hona. Leku-denborazko markek pertsonaien ekintzak nabarmentzeko eginkizuna zutela esan da. Oso urriak diren denbora-marka horietako batez hornitzen den ekintza, Maria liburutegira joan eta, Juan Rulforen liburua eskatzen duena da. Baina, *SPrako tranbian* ez dira nabarmentzen ekintza liluragarriak edo ametsezkoak bakarrik, ekintzarik hutsalenak ere nabarmentzen baitira, batzuk eta besteak parekatuz. Ikusi besterik ez dago leku-markak urriak baino urriagoak diren kontaketa leku-detalleen deskripzioetariko bat zertarako erabiltzen den: gai honetaz jarduterakoan egin den aipamenetariko batek erakusten duenez, Lucasek ongari-meta bat zapaldu zuela nabarmentzeko. Ekintzarik transzendenteenaren ondoan, miresgarriena, nimiñoena eta hutsalena nabarmentzen da. *SPrako tranbiak* gizakiari dagokion alderdi oro azpimarratzen du, bere beharrik primarioena eta sekundarioena, elementalena eta sublimateena, gizakia baitu erdigune: giza bizitza bere osotasunean da garrantzitsua.

Literaturak bere lege berezien barnean jorratu ohi ditu gaiak. *SPrako tranbia* ez da giza bizitzaren aurrean jarreraren bat defendatzeko lekua, ez da argumentuak erabiliz giza portaeraren bati buruz konbentzitzea bilatzen duen berbaldia... Hitza balio iraultzaileaz desjabeturik, zeinahi sinesbideren adierazpenerako bitartekari izatetik askaturik, berarekin jolastuz, gozatzeko tresna bihurtzen da. Literaturak gizakiarekin duen konpromisoa ez da mundua aldatzekoa, ez sinesbideak igortzekoa, baizik eta hitzaren erabilera ludikoa bide, bere gozamenerako izango den artefaktua sortzekoa. Ez gozamen inozo baterako tresna nahitaez, jakina.

